



## BEROAREN AURKAKO PLANA 2026. TEMPERATURA ALTUEK ERAGINDAKO OSASUN ONDORIOEN PREBENTZIOA EUSKADIN

### TOKI ADMINISTRAZIOENTZAKO JARDUEREN GOMENDIOA

Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoko Zuzendaritzak edo Euskalmetek/LAEMZek temperatura altuei buruzko jakinarazpena egiten badute, honako hau gomendatzen da:

#### 1. MAILA. ABISU-EGOERA TEMPERATURA ALTUENGATIK

- Herritar guztiei eta udalarekin lotutako erakundeei osasun-arriskuei eta temperatura altuekin lotutako prebentzio-neurriei buruzko informazio orokorra eman (1. koadroa) tokiko komunikabideen, informazio-pantailen, hondartzetako eta igerilekuetako sorospen-zerbitzuen eta abarren bidez.

Informazioa helarazteko lekuak eta zerbitzuak:

- Haur-eskolak.
- Adinekoen zentroak.
- Hiri-kanpalekuak.
- Kiroldegiak eta igerilekuak.
- Jantoki sozialak.
- Aterpetxeak eta harrera-zentroak.
- Bide publikoan obrak egiteko udalak kontratatutako obren eta zerbitzuen udal-brigadak.
- Etxez etxeko laguntza-zerbitzuen erabiltzaileen zaintza eta zainketa indartu. (ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA-ZERBITZUETARAKO GOMENDIOAK).
- Arriskuan dauden herritarrak (adinekoak, desgaitasuna duten pertsonak eta adingabeak) ibiltzen diren udal-espazioen erosotasun termikoa zaindu.
- Beren ezaugarriengatik muturreko beroaren eragin negatiboak arintzeko barnealdeko eta aire zabaleko kokapenak aurreikusi, udalerrri osoan banatutako "klima-babeslekuen" sarea eratzeke.
- Udalerrian programatutako ekitaldien berri izatea, bereziki ahalegin fisiko handia eskatzen dutenak, pertsona-kontzentrazio handiak sortzen edo eguneko ordu nagusietan egiten direnak.
- Ekitaldietarako eremu publikoa okupatzeko baimenak berrikusi, eta temperatura altuen egoerari eta gomendioei buruzko informazioa eman.

#### 2. MAILA. ALERTAK TEMPERATURA ALTUENGATIK

1. mailan adierazitako gomendioez gain, honako hauek gomendatzen dira:

- Larrialdi-egoeretan udalaren jarduera-planean adierazitako zerbitzuak ohartarazi. Halakorik ezean, egoera horietan jardun dezaketen udal-zerbitzuak aktibatu (babes zibila, udaltzaingoa, gizarte-zerbitzuak, boluntarioen elkarteak, etab.).
- Programatutako ekitaldien errealizazioa baloratzea eta temperatura altuen egoerari eta gomendioei buruzko informazioa ematea.
- Etxez etxeko laguntza-zerbitzuek edo bestelako udal baliabideek artatutako pertsonen zaintza eta zainketa areagotu, bakarrik bizi diren pertsonen arreta berezia eskainiz.
- Udalerriko klima-babeslekuen kokapenaren berri eman, bereziki, beroaren ondorioz zaugarrienak diren biztanleen artean.

#### 3. MAILA ALARMA TEMPERATURA ALTUENGATIK

Alarma-egoeran, aurreko jarduerak areagotu egingo dira, eta Larrialdiei Aurregiteko Zuzendaritzak koordinatutako larrialdi-egoeren jarraipen-mahaia erabakitako ezohiko neurriak hartuko dira kontutan LAEMZek koordinatuta edo Larrialdi Plana aktibatuta badago, Planaren Zuzendaritzak hartutako erabakiak hartuko dira kontutan.